

Kirolari ezagunen aurpegiak berdintasunaren eredu

MEmakumearen Udal Kontseilua osatzen duten emakumeen el-karte ezberdinek *Etxeko lanetan eta zainketan erantzukizuna konpartitzeko kanpaina* auzetatu zuten otsailaren 20an Ermua Zinemak. Ekitaldian, Emakumearen Kontseiluko taldeetako kideak eta kanpainan parte hartu duten Ermuko kirolari guztiak izan ziren. Aitor Galdos Espainiako eta Euskadiko Ziklokros txapel-duna izandakoa, Igor Astarloa 2003ko txirrindularitzako munduko txapelduna, Pedro Horrillo txirrindularia eta filosofoa, Javier Villalobos Espainiako altuera-jauziko txapelduna bi aldiz (1991an eta 2001 ean) eta Joseba Arriaga Bilboko Athleticeko jokalaria. Ekitaldia hasi baino lehen, Ermuko Antzerki taldekoek perfoamancea egin zuten Zinemako sarreran eta kirolariak postalak sinatzen egon ziren.

Egitasmoaren bultzatzaileek ekimena publizitate kanpaina gisa definitu zuten eta oro har jende guztiari zuzen-

Mutil gazteei zuzendutako egitasmoa da



duta badago ere, gizon eta batez ere mutil gazteei zuzendutako egitasmoa dela adierazi zuten.

Kanpainaren helburu nagusia, mutil gazteak etxeko lanetan eta zainketan erantzukizuna konpartitzeko sentsibilizatzeta da. Hau da, mutil gazteek ikus eta kontzientzia har dezaten, etxeko lanak eta etxean dauden zainketa ez dela emakumeen eginbeharra.

Konpartitzea irabaztea ere bada leloa aukeratu eta kirolarekin parekatu da kanpai-

na honetan, Ermuan dauden mutil gazte kirolarien fama aprobetxatuz. Horrela, kirolarien irudiak eraginkorrak eta eradugarriak izatea espero dute kanpainaren antolatzaileek. Halaber, 5 kirolariei euren borondatea eta laguntzeko gogoia eskertu zieten.

Emakume kirolariak gogoan

Bestalde, Emakumearen Udal Kontseiluak emakume kirolariak ere gogoratu nahi izan zituen. Ermuko kros eta

eskubaloian aritzen direnak eta baita, Ermuko emakume kirolarien aurrekari izandako raketistak ere gogora ekarri zituzten. Kirolean irabazten eta konpetitzen den moduan, "erantzukizunak konpartitzean, autonomia irabazten da, inguruko pertsonen maitasuna irabazten da, osasuna irabazten da, denentzako astia irabazten da eta ondorioz, gizarte zuzenago eta berdintasunezko gizartea irabazten da", ekimenaren bultzatzaileek esanetan.



Kirolariak etxeko lanetan

Pedro Horrillo izan zen hitza hartu zuen lehengoa eta Emakumearen Udal Kontseiluari eskerrak eman zizkion kanpainan parte hartzeko aukera emateagatik. Berak etxeko lanetan parte hartzen duela adierazi zuen, 14 hilabetez emaztearekin bizi baita. Hala ere, aurretik ikasten ibili zenean ere, gurasoen etxetik kanpo bi urte pasa zituen eta orduan ere ongi moldatzen zela etxeko lanekin aipatu zuen.

Igor Astarloak, 2 edo 3

egunetarako gurasoen etxera datorrenean, etxean ez duela asko egiten onartu zuen baina Italian bakarrik bizi zenean, berak egiten zuela jatekoa eta arropak ere berak

garbitzen zituela esan zuen. **Aitor Galdos** Italian bizi da gaur egun eta, han bakarrik dagoenez, etxeko lanak berak egin behar dituela aitortu zuen eta egin egiten dituela.

Joseba Arriagak, gurasoen etxean zegoenean ez zuela etxean lan handirik egiten aitortu zuen eta gaur egun ere, nahiz eta gurasoen etxetik kanpo bizi, egin behar duena baino gutxiago egiten duela esan zuen. Hala ere, aurrerantzean gehiago egiteko konpromesua adierazi zuen.

Azkenik, **Javier Villalobos** astean zehar etxeko lanetan parte hartzeko ez zuela denborarik esan zuen, baina asteburuetan ahal den neurrian egiten dituela etxeko lanak aipatu zuen.

Mutil gazteak aurrerantzean etxeko lanak konpartitzea espero dutela azpimarratu zuten bost kirolariak, emakume

eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzeko.


Kanpainaren hedapena

Egitasmoaren aurkezpenera Ermuko Elkarte eta eskola guztiak gonbidatu zituzten. Horretarako, kaleratu dituzten postal eta kartelak bidali zizkieten. Postal bakoitzak bere esaldia eta hitz jokoa du azpian, kirolariaren arabera eta egiten ari diren ekintzaren arabera. Joseba Arriaga, ume bati jaten ematen agertzen da eta honela dio postalak: "Harrobia zaintzea ez da beti erraza". Javier Villalobos arropa eskegitzen agertzen da eta zera dio esaldiak, "Ohituraren gainetik egin jauzi". Pedro Horrillo emakume nagusi bat laguntzen ari da eta bere esaldiak honela dio: "Merezitako atsedena lasterketa luze baten ondoren". Aitor Gal-

Kirolarien irudiak eraginkorrak izatea espero da



Emakumearen Udal Kontseiluko taldekideak bost kirolariarekin.



dos emakume baten gupil-aulkia bultzatzen agertzen da, "Makina bat alor bakoitzera-ko" dio postalak eta Igor Aslarloa plantxa eskuan duela agertzen da eta bere esaldiak, "Ea irabazten didazun" dio.

Postalak leku ezberdinetan banatuko dira eta kartelak Ermuko, Mallabiko eta Eibarko leku publiko guztietan jarriko dira.

Egitasmo gehiago

Halaber, Emakumearen Kontseiluaren barnean dauden emakume elkarte ezberdinek, elkarrekin beste bi egitasmo jarri zituzten martxan 2003an. Alde batetik, Kalea, berdintasunerako bidea proiektua garatu zen iaz DBH, Batxillergo eta Hasta-

pen Profesionaleko zentruan (CIP), tailer ezberdinak egin ez. Hiri eta herrietako bilakaera aztertu zen eta Ermua oinarri hartuta, gazteek eta generoa (sexua) kontuan hartuta herriaren zein leku erabiltzen dituzten aztertu da.

Bestalde, Minbiziaren aurkako Elkarteko emakumeen ekimenez, bigarren egitasmo bat ere burutu zen. Gaixo kroniko edo denbora luzez gaixorik dauden pertsonak eta pertsona nagusiak zaintzen dituzten emakumeen inguruko tailerra egin zen.

Kanpaina hau antolatzeaz gain, martxoan izango den emakumearen nazioarteko egunerako hainbat ekitaldi prestatu dira.

Alazne Aiestaran



Pedro Horrillo, postalak sinatzen, ekitaldia hasi aurretik.

MARTXOAREN 8 A

Urtero bezala, Emakumearen Udal Kontseiluaren barnean dauden emakume talde ezberdinek Martxoaren 8rako, Emakumearen Nazioarteko Egunerako egitarau zabala prestatu dute. Martxoaren 8ko kartel lehiaketan irabazle ateratu zen, Lorea Perosanz Amestiren lana izango da, egitaraua ilustratuko duen kartela.

ERAKUSKETAK

MARTXOAREN 1TIK 13RA • LIBURUEN

ERAKUSKETA, Udal Liburutegian. Emakumeen gaiak ardatz eduki eta lantzen dituzten liburuen erakusketa

MARTXOAREN 1TIK 13RA • Liburutegiko erakusketaretoan, "Martxoaren 8"ko kartel lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa

AFARIA

MARTXOAREN 6AN • Batzokiko Jatetxean, gaueko 9:30ean Emakumeen arteko afaria. Prezioa: 20 euro. Izen-ematea beharrezkoa da.

TOPAKETA

MARTXOAREN 8AN • TOPAKETA, Cardenal Orbe plazan, arratsaldeko 6:00etan Emakumeen arteko topaketa, Nazioarteko eguna ospatzeko.

ZINE-KLUBA

MARTXOAREN 4AN • Angeles Gonzalez-en "La suerte dormida" filmaren emanaldia

MARTXOAREN 11N • Ana Diez-en "Algunas chicas doblan las piernas cuando hablan" filmaren emanaldia

MARTXOAREN 18AN • Helena Taberna zuzendariaren "Extranjeras" dokumentalaren emanaldia.

ERMUA Zineman, gaueko 10:15ean

ANTZERKIA


MARTXOAREN 5 ETA 6AN • Ermuko IZARRAITZ Taldeak "Mus de televisión" antzezlanaren aurkeztutako du.

MARTXOAREN 12AN • "Las mujeres de verdad tienen curvas" antzezlanaren, ADOS Taldearekin ERMUA Zineman, gaueko 10:15ean

HITZALDIAK

MARTXOAREN 17AN • Arratsaldeko 6:30ean, "Emakumeak Palestinan" hango bi emakumerekin, (BILADI palestinar zentro kulturala)

MARTXOAREN 24AN • Arratsaldeko 7:00etan, "Méjico-Ciudad Juárez"eko emakumeen hilketak, Graciela Atenciorekin. "Señorita Extraviada" dokumentala ikusteko aukera izango da. Emakumeen Topalekuko Ikus-entzunezkoen Aretoan

 **BAR GERALEKU**

Bost'erdietatik zabalik.

San Inazio, 5. ☎ 17 00 32

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak, bideoak, musika, aparatoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

 **OKINDEGIA**

Ignacio Peña

Okindegiko ☎ : 17 01 69

Etxeko ☎ : 17 14 55

Goienkalea, 12 - behe

ILEAPAINDEGIA

Izaskun

Goienkale. 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA